

3) Su sensibilidad hacia la educación de actitudes acordes con la necesaria afirmación de sí y la necesaria apertura al otro, de cara a la resolución de los conflictos.

4) Su desmitificación y denuncia de la guerra, la violencia política y el militarismo.

5) La aportación de una importante cantidad de recursos didácticos como: juegos cooperativos y de simulación por lo que a educación de actitudes se refiere; uso de obras literarias y filmes de ficción, para la educación de la sensibilidad y las convicciones y para incitar al debate ante determinados conflictos de valores; uso de filmes históricos y documentales, así como trabajo con la prensa escrita, de cara al análisis crítico de la realidad, tanto presente como histórica.

8. Situada como está esta intervención en el contexto vasco, queremos concluir apuntando que es precisamente desde el marco de los derechos humanos —situados en el campo educativo— desde esta línea transversal que se nos propone, desde donde podemos abordar la dimensión ético-política del problema diferencial vasco y su coordinación con el Estado y con Europa, así como el doloroso problema de la violencia de ETA. Aunque no es éste el lugar de entrar en detalles sobre lo que esto puede suponer, sí debe afirmarse que le toca a la escuela potenciar una reflexión crítica sobre ellos, suficientemente distanciada de las posturas más estrictamente partidistas pero no de la realidad, que motive comportamientos acordes con los derechos humanos y la paz.

OSASUNARI BURUZKO INTERESA

JOSI SIERRA

Osasunarekin erlazionaturiko gaiak, eta batez ere, gaixotasunekin, betidanik sortu dute berebiziko interes bat jendearengan. Azken bolada honetan hareagotu egin da mitikoak bihurtu diren eritasun batzuekin: aipatu besterik ez dago minbizia, drogomenpekotasuna, edo IHESA.

Osasuna eta Bizimoduak

Paraleloki sensibilitate berri bat sortuz joan da, osasuna bizitzarekin erlazionatuz, gaixotasunetatik urrunduz. Honela pertsonen bizimoduak, hau da, ohiturak, eguneroko ekimenak eta jarrerak, osasun egoeran duten garrantzia azaldu da.

Canadako ministro ezagun batek, Lalonde jaunak, argi adierazi zuen, beste faktore batzuen artean, osasunaren faktore eragile garrantzitsu bezala, pertsonaren ingurua agertzen zela: naturala eta sozio-kulturala.

Eusko Ikaskuntzak eta osasun Hezkuntza (OsHez)

Zein da osasun Hezkuntzak Eusko Ikaskuntzen artean izan behar duen papera? Kongresuaren lehen agiriaren 6. orrialdean aipatzen zenez, “komunitate baten eskaera sozial eta kulturalen arabera jakintzen kontestualizazioari irekia den filosofiaren partaide izatean datza instituzionalizazio horren kausa”.

Eta Osasuna gaiak gaurko gizartearen ardura eta eskaria izanik ere, pertsona bakoitzaren sentipenen zati on bat betetzen dute ere.

Beraz “kontestualizazioaren eta curriculum irekiaren printzipioak berak arazo orokor edo unibertsalen tratamendua

bideratzen du gure herriari dagozkion eduki, da tu edo erreferentzien bitartez’ esaten duen horretan, bertoko pertsona bakoitzaren nahi eta desioak, *ahalik eta ondoen bizitzea* alegia, OsHez-aren enfokerik egokiena izan daiteke, Euskadiko pertsona guztien ardura bat Eusko Ikaskuntzen arloa izatea justifikatuz.

Gainera Osasuna ahalmen bat bezala ulertuz, ongizate egoera bezala, pertsona gai da integratzen den gizartearen ekin eta bizitzeko, Munduko Osasun Erakundeak (WHO/OMS) Almahatan adierazi zuenez.

OsHez-aren APORTAZIOA

Ezagupen orokorrari eta curriculumari bereziki, OsHez-ak sare kontzeptual berri bat aportatzen die, bio-mediko eta siko-soziologiaren ikuspegi ezberdinak gehituz, errealtatea ulertzeko paradigma berri batez:

- * Osasun eta gaixotasunaren arteko jarraikortasuna aitortuz, marrarik ez bait dago, egoera bi hoiek argi bereiz ditzakenik.
- * Bizitzan zehar gorputzak duen funtzionamendua, eboluzioa eta hazkundera.
- * Pertsona osotasun psiko-somatiko batez ulertzea, ikuspuntu ekologiko-antropologikoarekin: inguru holistikoan integraturiko gizon eta emakumeak.

Baina edukin kontzeptualak ez dute mugatzen OsHez-a: norbere burua zaintzen jakiteko prozedurak ere eskeintzen dizkigu: bizimodu osasuntsuak.

Horretara bultzatuko gaituzten balore, jarrera eta arauak gureganatzeko ulermena era erabakitzeke gaitasuna garatuz.

Osasun Hezkuntza: behetik gorako Osasuna Pertsonaren garrantzia

Pertsona bakoitza, indibidualki, ondo sentitu behar da, bere buruarekin. Horretarako oso garrantzitsua da:

- * berarekiko estima eta irudia onak izatea
- * lagun batzuekin elkartzea
- * harreman atsegin bat sortzea
- * askatasun giro batetan haztea.

Badirudi eskolaurrean gauza hauek kontutan hartzen direla eta garrantzia ematen zaiela; baina urteak pasatu hala, ahaztu egiten dira:

- * klasean nola portatzen diren ikastetxean nork agintzen duen
- * *desmadratu* ez daitezen zer ezin dute egin ...

Biharko gizon eta emakume hauek, gaurdanik, pertsonak dira (txikitsuagoak izanda ere, eta ez beti) eta horrela tratatu behar ditugu, bizi garen gizarte demokratikoan errespetuz jokatzeko pertsona guztiek.

Eskola gizartearen eredu

Neurri batetan, txikia izanik ere, gela ikasleentzat KOMUNITATE bat da: bere ikaskideen komunitatea; eta azken teoria pedagogikoak azaldu digutenez, oso garrantzitsua ikasketa esanguratsuak izateko, berdintsuen artean ikasitakoa oso aberatsa delako.

Honek irakaslearen papera aldatzen du: pertsona helduen eredu bezala izango da, momentu guztietan *eredu* bat izanik.

Orduan eskolak ZER EGIN BEHAR DU?

* Pertsona guztien DIBERTSITATEA kontutan izan.

Bakoitzak gure amaren urak, edo aitarenak baita, izango ditugu. Eta denontzat izan behar du tokia eskolak, gizarteak bezalaxe: gaixorik ala osasuntsu egon, denok garatu behar ditugu gure ahalmenak punturik goreneraino.

* Denon PARTAIDETZA bultzatu

Gizartean izango dugun papera, eskolan garatzen hasi behar da. Indibidualki eta kolektiboki badugu zeresanik gure gizartean: familian, auzoan, herrian, komunitatean,... eta munduan ere bai. Etorkizuna denona da, eta denon artean egingo dugu.

* KOMUNIKAZIOA erreztu

Pertsonen arteko harremanak garrantzi handikoak dira ondo sentitu gaitezen. Gizartearen maila bakoitzean inplikaturik dauden pertsonak elkar ulertzeko komunikazioa behar beharrezkoa da.

* INGURUAREKIKO INTEGRAZIOA bultzatu

Jendea ondo sentitzeko inguru hurbilean sustraiturik egon behar du: kulturala, ekonomikoa, soziala inguruaren alde ezberdinak dira, pertsonaren egoeran eragiten dutenak. Ongi ezagutu, eta parte hartzeko gaitasunak izan ezinbestekoak dira erabaki eta ardurak har ditzan.

Eta osasun hezkuntza non?

Osasun hezkuntza eskolaren *zehir leerro* bezala kontsideratu behar da. Honek esan nahi du eskolan egiten den guztia BUSTITZEN egon behar dela. Beste era batera esanda, eskolan egiten den guztia, pertsonaren osasunean eragina izango duenez, kontutan euki behar da:

- * zihurtasun neurrietatik hasita, garbitasunera
- * eskolako giro fisikoa eta harremanetako batetik
- * antolaketa sistemak bestetik: ordutegiak lan egiteko eta atsedenerako, gelan egiten diren lanak eta etxerako bialtzen direnak ...

Zer landu?

8 bat topiko dira oinarrizkoak, eta hauekin erlazioz atuta, osasunarekin zerikusia duten gehienak aipatu daitezke:

- * janariak: elikadura eta nutrizioa
- * garbitasuna eta zainketak
- * substantziak: botikak, drogak eta abar
- * harremanak, afektibitatea eta osasun mentala
- * sexualitatea

- * ariketa fisikoa eta gorputzaren mantenimendua
- * estresa gutxitzeko jokabideak
- * egoerei aurre egiteko jokabideak, aldaketetara adaptatzeko

Nola?

Osasun hezkuntza ESPIRAL bat bezala izan behar luke: gai berdintsuak erabiliko dira sakontasun ezberdinez. Adin ezberdinetan egokituko dira: beren interesen arabera eta jakituko ahalmenaren mailan.

Inguruan gertatzen diren gauzak aztergai izango dira, bertan interbenitzeko estrategia pentsatuz eta erabakiz. Beraz errealitatearekin kontaktuan egon beharko da eskola.

Norekin?

Eskolan inplikaturik dauden guztiekin kontatu beharko da. Ikasleekin noski baietz, baina gurasoak zeresan handia dute: ezin dugu kontraesanik sortu (ahalik eta gutxien) eskola eta familiko mezuen artean.

Beste pertsona batzuk ere izango dute eraginik: sukaldariak, autobuseko gidari eta zaintzaileak, atezaina ... denak dute arduraren bat ikasle eta irakasleen ondo-egote horretan.

Hitz bitan esateko eskolak BIZIMODU OSASUNTUAK bultzatu behar ditu.

CONCLUSIONES

En la Mesa Redonda celebrada el día 30 de Noviembre y que llevaba por título “¿QUE ES LA TRANSVERSALIDAD?”, se recogieron una serie de demandas que se consideraron imprescindibles para llevar adelante la puesta en práctica de lo “transversal”,

Desde esta mesa nos unimos ellas y apoyamos los planteamientos que salieron. Y añadimos lo siguiente:

* Pedimos a la Administración que reconozca y desarrolle la “Educación Intercultural” como línea transversal.

* Estimamos conveniente aprovechar, rentabilizar y apoyar los recursos existentes: colectivos con experiencia en estos temas, ONGs, distintos grupos de trabajo e investigación, etc.,...

* Es necesaria la elaboración y publicación de modelos de materiales que están concebidos desde la Transversalidad, que orienten sobre nuevas formas de organización de los Centros Educativos, sobre la elaboración de los PCCS, sobre las Programaciones de Aula,...